

eskola & finantzak

P R O G R A M A

Laguntza material didaktikoa





• Dirua	4
• Finantza sistema	5
• Finantza egonkortasunaren garrantzia	7
• Zer egin behar da finantza ezegonkortasuna saihesteko?	10
• Banku sistemaren arauketa	12
• Norentzat dira onuragarriak Vital Kutxaren banku emaitzak?	14
• Kutxa eta gazteak	16
• Finantza produktuak eta zerbitzuak kontsumitzeko aholkuak	17

Dirua

Gaur egun, dirua behar-beharrezkoa da gure bizitzan. Enpresek dirua ordaintzen diete langileei, eta Estatuak beste horrenbeste egiten du funtzionario eta pentsionistekin. Diru hori, gero, beharrezko ondasunak erosteko erabil daiteke, edo bestela gorde egin daiteke, aurreztu, etorkizuneko beharretarako. Beraz, dirua zer den, jendeak zergatik nahi duen eta egungo erabilera noiztik ematen zaion azaltzen saiatuko gara jarraian.



Diruaren historia

Gizarte primitiboetan ez zegoen dirurik, eta trukea erabiltzen zuten, hau da, salgaiak elkarren artean zuzenean trukatzeko zituzten.

Sistema nekeza zen, denbora luzea eta ahalegin handia eskatzen baitzituen.

Trukea gauzatzeko, ezinbestekoa da “elkarren nahia bat etortzea”, hau da, norbaitek behar duen ondasunaren jabea ondasun horren truke eskaintzen zaionarekin ados egotea.

Demagun, adibidez, ontziak egiteko gaitasuna dugula, eta gaitasun horren truke elikagaiak eskuratu nahi ditugula. Beraz, ontzi bat egitea nahi duen nekazari bat aurkitu beharko dugu.

Jardunbide horretan, jakina, eginahalak egin eta denbora luzea itxaron behar da truke egokia aurkitu arte. Eta behin aurkitutakoan, bakoitzak zenbat unitate hartuko/emango dituen adostu behar dute bi aldeek (zenbat tomate balio duen ontzi batek). Gorabehera horien guztien ondorioz hasi ziren, hain zuzen, dirua erabiltzen.

Diru salgaia eta diru fiduziariora

Historian zehar, hainbat ondasun erabili izan dira egungo diruaren orde.

Diruaren orde gehien erabili diren salgaiak urrea, zilarra eta metal preziatuak dira. Antzintasunean, Egiptoko goialdean maskorrak erabiltzen zituzten, Mesopotamian garagarra, eta

Ekialde Urruneko zenbait gizartetan arroza. II. Mundu Gerraren ondoren, Alemanian zigarroak eta edari alkoholdunak ere erabili zituzten. Diruaren ordeko ondasunen adibideak ugariak dira bai gizarteetan bai historiako hainbat garaitan.

Era horretako “diruari”, hain zuzen, diru salgaia deitzen zaio. Gizakiek dirua balitz bezala erabiltzen eta eskatzen dutenez, kontsumo ondasunei dagokien balioa hartzen du azkenean.

Baina diru salgaian oinarritutako ekonomia ez da eraginkorra, eta horregatik sortu zen diru fiduziariora delakoa. Horrelako diruak berez ez du baliorik, baina ordainbidetzat eta gordailu baloretzat hartzen eta onartzen da. Egungo billeteak eta txanponak diru fiduziariorat hartzen dira.

Ikusten denez, diru fiduziarioraren balioa ez da berezkoa. Izan ere, jaulkitzen duen entitatearen sinesgarritasunak eta ordainbide unibertsaltzat onartzen duen jendeak ematen diote balioa.

Oro har, tokian tokiko herrialdeko Banku Zentralak dira dirua jaulkitzeko eskumena duten bakarrak. Hemen, Espainiako Bankuak (Europako Banku Zentralaren aginduz) kaleratzen ditu euro billeteak eta monetak. Bistakoa da diruaren definizioari zentzu zabalagoa eman behar zaiola, zirkulazioari jarritako billeteak eta txanponak ez ezik, ondoren aipatuko ditugun hiru funtzioak betetzen dituzten bestelako aktiboak ere hartu behar baitira dirutat.

Diruaren definizioa eta funtzioak

Ekonomian, hurrengo hiru funtzioak betetzen dituen edozein ondasun hartzen da dirutzat:

- Herrialde edo herrialde elkarteko bateko biztanle guztiak onartutako ordainbidea izatea, elkarren arteko trukeak errazteko.
- Aurrezteko (egungo kontsumoa etorkizuneko kontsumo bihurtzeko) aukera ematen duen balore gordailua izatea.
- Kontu unitatea izatea, hau da, ekonomiako ondasun eta zerbitzuen prezio guztiak adierazteko neurria edo esku-diruko ondasuna. Ekonomiako ondasun eta zerbitzuen prezio guztien kontu unitatea edo neurria

Adibidez: Euro eremuko herrialdeetan euroa erabiltzen dute transakzioetarako, herrialde guztietako hiritarrek ondasunak salerosteko ordainbidetzat onartzen dutelako. Euroa kontu unitatea era bada, gaur egun Espainiako ondasun eta zerbitzu guztien prezioak eurotan adierazten baitira. Gainera, balore unitate gisa (billeteak) gorde daitezke, edo aurrezki kontuetan sartu, etorkizunean erabiltzeko.

Laburbilduz:

- *Jatorrizko merkataritza jardunbiderik zaharrena, trukea, bateratzeko eta antolatzeko sortu zuten dirua.*
- *Historian zehar, hainbat salgai (diru salgaia) erabili dira diruaren orde: gatza eta metal preziatuak, adibidez. Horrelako salgaiek berezko balioa zuten.*
- *Denboraren poderioz, diru fiduziariora erabiltzen hasi ziren. Egungo billeteak eta txanponak diru fiduziariora dira: balioa ez da berezkoa, entitate jaulkitzailearen sinesgarritasunaren ondoriozkoa baizik.*
- *Gaur egun, herrialdeetako banku zentralak kaleratzen dute dirua eta ematen diote balioa.*
- *Diruak hiru funtzio bete behar ditu:*
 - ordainbidea izatea
 - metatzeko eta aurrezteko aukera ematea
 - kontu unitatea izatea

Finantza sistema

Ekonomia jarduera erreala eta finantza jarduera

Hona hemen ekonomia jarduera errearen definizioa: gizabanakoek ekoizpenaren, trukearen, aurrezkiaren eta ondasun eta zerbitzu kontsumoaren inguruan hartzen dituzten erabakien multzoa. Horrela, ekonomia jardueraren helburua kontsumo ondasunak sortzea da, eta aurrezki eta trukea, aldiz, ekoizpen prozesuaren tarteko erabakiak dira.

Ekonomia jarduera erreal guztietan, oro har, finantza eragiketaren bat gauzatzen da.

Adibidez: etxetresna bat erostea diru truke. Merkatariek bere finantza entitatean sartzen du dirua. Entitateak erakitzaile bati mailegatzen dio diru hori, eraiki dezan. Eta gero, bezeroari mailegatzen dio, etxebizitza erosteko.

Egoera soberakindunak edo defizitarioak

Gizabanakoek ekoizpen eta kontsumo prozesuetan egiten dituzten finantza jardueren iturburuak honako hauek dira:

- **Baliabideak sobera edo mailegatzeko gaitasuna:**

Kontsumo ondasunak (auto edo motor bat) edo ekoizpen prozesurako ondasun eta zerbitzuak (makinaria) erosteko baino diru gehiago dugunez, soberako kopurua etorkizunerako gordetzen dugu (aurrezki).

- **Baliabide defizita edo mailegua eskatzeko premia:** Behar ditugun ondasun eta zerbitzuak erosteko adina baliabide ez izatea (mailegua).

Baliabide soberakinetan edo defizitean oinarritutako sistemaren arabera, ondorio erraz bat atera dezakegu: Dirua behar duen gizabanako bakoitzak diru zenbateko hori mailegatze-ko prest (eta itzultzeko epe jakin horretan) dagoen norbait bilatu beharko luke. Bien asmo edo nahiek bat etorri beharko lukete, beraz, diruari buruzko atalean aipatu dugun bezala.

Finantza jarduerak, hain zuzen, horrelako arazoak konpontzeko sortu ziren, baliabideak sobera dituztenek baliabide horiek behar dituztenei mailegatzeko aukera izan dezaten. Horrela, erosleak dirua ez du ordaintzen momentuan bertan, geroago baizik, salgaia erosten duen unean. Finantza tresna jakin baten bidez (mailegua, letrak etab.), saltzailearekiko obligazioa aitortzen du, eta, handik denbora batera, ordain-

tzeke geratutako kopurua eta gehigarri bat (interesa) ordaintzako konpromisoa hartzen du.

Bistakoa da, beraz, ekonomia jakin bateko kideen arteko finantza baliabideen trukean oinarritzen dela finantza jarduera, eta truke horiek ekonomia jarduera errealaren ondorioz gauzatzen direla oro har.

Finantza sistema

Finantza jardueraren antolamendua osatzen duten erakunde, bitarteko eta merkatuen multzoa. Aurrezkoa bideratzeko aukera ematen dute, ekonomia jarduera erreal (ekoiztea eta kontsumitzea, esaterako) garatzeko baliabideak sobera dituztenen eskuetatik beharra dutenen eskuetara iritsi daitezten.

Finantza sistema ororen deskribapenetan ezinbestekoa da hiru alderdi hauek aipatzea:

- **Osagai instituzionala:** finantza-merkatuetan parte hartzen duten erakundeen jarduerari buruzko xehetasunak. Guztietan garrantzitsuenak finantza bitartekariak edo bankuak dira.
- **Osagai instrumentala:** finantza tresnen eta tresna horiek kaleratzeko moduen nondik norakoak.
- Finantza aktiboak **negoziatzeko mekanismoen osagaia:** finantza merkatuen funtzionamendua eta arauak.

Herrialde baten baitan eta herrialde horren eta gainerakoen artean gauzatzen diren finantzaketa prozesuen multzoa da finantza sistema. Aipatutako prozesuak finantza tresnen bidez bideratzen dira, eta tresna horiek finantza merkatuetan kaleratzen eta trukutzen dira, finantza erakundeen laguntzaz.

Finantza sistema modernoetan, aipatutako antolamenduak bi oinarri handi ditu:

- Balore merkatuak
- Finantza bitartekariak

1 - Balore merkatuak

Finantzaketa beharra dutenek ñoro har enpresek eta sektore publikoakñ balore merkatuetara jotzen dute baliabide bila. Guztira eskatutako diru zenbatekoa hainbat zati txikitari edo baloretan banatzen da. Zati edo balore guztiek ezaugarri berberak dituzte, eta baliabideak mailegutan emateko prest dauden artean banatzen dira. Aipatutako prozesua lehen mailako merkatuak direlakoetan gauzatzen da; horietan sortzen dira baloreak.

Aipatutako balore guztiak, berdinak izateaz gain, eskualdatu egin daitezke. Hau da, jatorriz eskuratu zituenak saldu egin ditzake gero, bigarren mailako merkatuak direlakoetan. Salmenta prozesu horretan, baliabideen hasierako ekarpena egin zuenak ez du zain egon behar itzultzeko epea iritsi arte, aurretiaz berreskuratu baititzake, baloreen eroslearekin inolako loturarik izan gabe. Prozesu horrek ez du inolako eraginik baloreak kaleratzen edo jaulkitzen dituenarengan ere, jasotako finantzaketari bere horretan eusten baitio hasieran hitzartutako datara arte. Enpresek jaulkitako akzioak kotizatzeke balore burtsak bigarren mailako merkatuen adibidea ditugu.

2 - Kreditu finantzen bitartekariak

Gehienetan “banku” hitza erabiltzen dugu horrelakoak izendatzeko, baina termino horrek, bankuak ez ezik, aurrezki kutxak eta kreditu kooperatibak ere hartzen ditu barne

Aurreztaileen eta inbertitzaileen arteko bitartekariak dira. Lehenengoek emandako dirua bigarreni mailegatzen diete.

Bitartekaritza prozesu horretan, bankuek kasuan kasuko kopurua nahi dutenean, hitzartutako eran, itzultzeko konpromisoa hartzen dute aurreztaileekiko. Horrela, konfiantza funtsezkoa da sistemak funtzionatzeko.

Aldaketa prozesua: dirua finantzaketa tresna bihurtua

Bankuen zeregina ez da mugatzen bitartekaritza lana egitera, hau da, bi aldeen arteko adostasuna lortzera, finantza tresna jakin bat trukatu dezaten. Bankuek aldaketa lana ere egiten dute: finantzaketa bila joaten direnengandik lortzen duten finantzaketa tresna eta dirua gordailutan uzten dutenei saltzen dietena ez dira etortzen bat.

Eraldaketa prozesu horri esker, truke ekonomien berehalako arazo nagusia (bi aldeen asmoak edo nahiak bat etortzea) konpontzea lortzen da.

Bankuek gauzatzen duten aldaketa prozesuaren elementu nagusiak honako hauek dira:

- **Jaulkitzailea:** Dirua bankuan uzten duenaren eta gerora diru hori eskuratzen duenaren artean ez dago inolako loturarik. Aurreztaileek gordailutan utzitako dirua fondo premia dutenei mailegatzen die bankuak, bere kontura eta dagozkion arriskuak onartuz.
- **Epeak:** Bankuek eskala handian jarduten dute, hau da, bezero asko izaten dituzte, eta dirua ia etengabe jasotzen eta mailegatzen dute. Hori esker, emandako maileguen (normalean luzeak, adibidez hipoteka maileguak eta eskatzen dituzten maileguen (gehienetan laburrak: esaterako gordailuak) epeen artean ez da egoten inolako loturarik.

- **Zenbatekoak:** Epeekin gertatzen den bezala, ia edozein kopuru finantzatu dezakete bankuek.

Bankuen bitartekaritza eta aldaketa funtzioa ekonomiaren osagai guztientzat da onuragarria.

- **Aurreztaileentzat,** beren aberastasuna mamitzeko moduko finantza tresnak eskaintzen baitizkie.
- **Baliabide eskatzaileentzat,** fondoak eskuratzeko aukera ematen dietelako. Eta gainera, aurreztaile txikiak mobilizatzen ditu, horiek nekez jotzen baitute balore merkatuetara beren diruarekin.
- **Ekonomia osoarentzat,** baliabideak eraginkortasunez banatzeko oinarri erabakigarria da eta.

Nolako eragiketak egiten dituzten kontuan hartuta, argi dago bankuak herrialdeetako ekonomiaren funtsezko ardatzetako bat direla, aurrezki, inbertsio eta finantzaketak bankuek bideratzen baitituzte, hein handi batean. Horregatik, bankuen jarduna arreta bereziz behatu, arautu eta ikuskatu egiten dute.

Laburbilduz

- *Ekonomia eta ekoizpen sisteman bi egoera sortu daitezke:*
 - *Soberakinak sortzea: ondasunak edo zerbitzuak erosteko behar dena baino diru gehiago dagoenean.*
 - *Defizita sortzea: dirua behar denean beharrei aurre egiteko.*
- *Finantza jarduerak bi egoerak orekatzeko aukera ematen du, trukean ez bezala, ez baita beharrezkoa bi aldean asmoak edo nahiak bat etortzea.*
- *Finantza jardueraren antolamenduari lotutako erakunde, bitarteko eta merkatuen multzoa da finantza sistema.*
- *Finantza sistema modernoetan, bi antolamendu oinarri nagusi daude: balore merkatuak eta finantza bitartekariak edo bankuak eta kutxak.*
- *Finantza bitartekariak aldaketa prozesu jakin bat gauzatzen dute: dirua finantzaketa tresna negoziagarri bihurtzen dute. Funtzio hori ekonomiaren alderdi guztientzat da onuragarria.*

Finantza egonkortasunaren garrantzia

Zer da finantza egonkortasuna?

Moneta eta finantza sistemaren funtzionamenduan arintasuna eta eraginkortasuna nagusi direnean, finantza egonkortasuna dagoela esaten da. Horrelakoetan, ekonomia garatuetako Banku Zentralen moneta politiken ondorioek ez dute eragiten inolako gorabeherarik, eta kreditu entitateek, aurreztaileengandik jasotako fondoak baliabide eskatzaileen artean banatzeaz gain, bezeroei ohiko banku zerbitzuak normaltasunez eskaintzen dizkiete.

Finantza egonkortasuna behar-beharrezkoa da ekonomiak egoki funtzionatzeko, besteak beste, konfiantza giroa sortzen baitu erabakiak hartzeko.

Finantza ezegonkortasunaren ezaugarriak

Medikuntzan bezalaxe, finantzetan ere ezegonkortasuna gaixotasuna da, eta bi sintoma garbi ditu:

1. **Aldakortasun handiegia** (hegazkortasuna ere esaten zaio) aktiboen prezioetan. Aipa dezagun finantza ezegonkortasunaren adierazle garbi bat: aktiboen prezioak gehiegi aldatzea eta balio erreala islatzeari uztea. Adibidez,

burtsako kotizazioak (edo akzioen prezioak) ia etengabe aldatzen dira, hainbat faktoreren arabera. Une bakoitzean ezagutzen den informazioa da, izan ere, faktore horietako bat.

Adibidez: Zer gertatuko litzateke auto baten prezioetan izugarrizko gorabeherak edo aldaketak egongo balira egunetik egunera? Noiz erosiko zenuke? Izango al zenuke erabakia hartzeko arrazoizko oinarririk?

2. **Entitateen funtzionamendu txarra.** Egoera jakin bazuetan, bankuek eta kutxek normaltasunez funtzionatzeari uzten diote, eta, ondorioz, baliabideak eraginkortasunez banatzeko prozesuan eragozpenak sortzen dira.

Adibidez: Demagun bankuak zainak direla eta giza gorputzaren atal guztietara eramaten dutela odola (alegia, dirua ematen diotela ekonomiaren alderdi guztiei). Argi dago nolako arazo larriak izango genituzkeen zainetan oztopoak sortzen hasiz gero.

Finantza ezegonkortasunaren arazoak

Zerk sorrarazi dezake finantza ezegonkortasuna? Finantza ezegonkortasunari lotutako sintomek hainbat iturburu izan ditzakete:

1. Politika makroekonomiko ezegonkorak eta arazoak ordainketa sistemetan. Ekonomia politikak osasuntsuak eta zuhurak ez badira, denborak aurrera egin ahala arazo garrantzitsuak sortuko dira, ezbairik gabe. Kontzeptu hori oso zabala da, eta alderdi ugari uztartzen ditu, hala nola:

- Zerga diziplinari eusteko beharra (sektore publikoan, gastuen eta sarreraren arteko oreka egokia).
- Prezioak egonkortzeko politikak garatzeko beharra. Izan ere, inflazioaren ondorio kaltegarri ugariak aztertu ditugu jadanik.

2. Bankuek eragindako arazoak. Lehenago adierazi dugunez, finantza ezegonkortasunaren iturburuetako bat, eta garrantzitsua gainera, bankuen funtzionamendu txarra da. Azter dezagun, bada, zer faktore egon daitezkeen okerreko funtzionamendu horren atzean.

Dagoeneko azaldu dugu nola sortu ziren bankuak eta zer zeregin dagozkien finantza sisteman. Era berean, bankuek egoki funtzionatzeko nahitaezko baldintza konfiantza dela aipatu dugu.

Norbaitek bere dirua bankura eramaten duenean, ez da geratzen kutxa batean gordeta jasotzera joan arte. Aitzitik, bankuak beste pertsona edo enpresa batzuei mailegatzen die, baina, aldi berean, nahi duenean bueltan itzultzeko konpromisoa hartzen du dirua gordailutan utzi duen aurreztailearekin. Kate horretan, dirua gordailutan uzten dutenek konfiantza izaten dute, eta entitateak bere konpromisoak bete-teko dituela uste dute bete-betean.

Konfiantza hori zapuztuko balitz, negozioak jadanik ez luke funtzionatuko, aurreztaileek dirua itzultzeko eskatuko lukete, eta bankuak gorriak ikusiko lituzke. Ondorioz, finantza ezegonkortasun larria sortuko litzateke.

Konfiantza galera eta finantza ezegonkortasuna

Gertakari jakin batzuen ondorioz bankuetan jarritako konfiantza galtzen bada, litekeena da dirua gordailutan utzita daukaten bezero guztiek aldi berean erretiratu nahi izatea.

Ohiko egoeretan, bankuek ez dute izaten inolako arazorik gordailugileei (bertan gordeta dutenei) dirua itzultzeko. Baina gordailugileak fondoak azkarregi erretiratzen hasten badira, orduantxe sortzen dira arazoak. Bankuek oro har epe luzeagoetarako mailegatzen dutenez dirua, beharbada une horretan ez dute izango behar adina fondo, eta ezingo dute gordailugileek eskatutako kopurua itzuli.

Horrelakoetan, finantza entitateek beren aktiboak, besteak beste emandako maileguak, kitatu (diru bihurtu) egin behar

izaten dituzte, eta ahalik eta azkarren gainera. Gehienetan, benetako balioa baino askoz ere kopuru txikiagoa eskuratzen dute: aktiboen kalitateak mesfidantza sortzen du erosle potentzialengan, eta, ondorioz, eskatutako prezioa baino txikiagoa ordaintzen diote bankuari.

Adibidez: Antzeko zerbait gertatuko zaio bigarren eskuko autoa lehenbailehen saltzen saiatzen denari: ziurrenik merkeago erosiko diote.

Horrelako gorabeherak hasieran banku jakin batean gertatu arren, arazoak oso erraz eta azkar hedatzen dira sistema osoan. Horri guztiari kutsadura edo arrisku sistemikoa esaten zaio: hainbat bankuk porrot egin ondoren, banku sistema osoak behea jotzea.



Adibidez: Duela urte batzuk Argentinan antzeko zerbait gertatu zen, eta gobernuak dekretua kaleratu behar izan zuen, aurreztaileek bankuetako gordailu guztiak aldi berean ez ateratzeko (icorralito ezaguna).

Kutsadura arriskutsu horrek bi iturburu nagusi izan ditzake:

- Entitate batean jarritako konfiantza bertan behera geratzen denean, gainerakoek ere mesfidantza sorrarazten dute. Horrela, ongi dabilzan entitateetako aurreztaileak ere gordailuak ateratzen hasten dira, eta, ondorioz, beste krisialdi bat sortzen da.
- Bankuen arteko harremanak ugariak dira oso: besteak beste, dirua mailegatzen diote elkarri. Batzuen krisialdiak gainerakoetan ere izango du eragina, eta konfiantza falta-rekin beste horrenbeste gertatu daiteke.

Zergatik galdu daiteke bankuetan jarritako konfiantza?

Lehenago esan dugunez, bankuek mailegatu egiten dute bezeroek bertan utzitako dirua. Maileguak, izan ere, aktiboen osagai nagusietakoak dira. Horrela, dirua bankuan utzi duten bezeroei aktiboen (adibidez, maileguen) kalitatea kas-kartu egin dela iruditzen bazaie, zalantzak sortuko zaizkie bankuak diru hori bueltan emateko izan dezakeen gaitasunaren inguruan. Bestela esanda, bankuak maileguak oker ematen dituztenean gertatzen da hori, alegia, ordaintzen ez duten kaudimengabeei ematen dizkietenean. Beste alor askotan bezalaxe, zenbait akats egitea normala da negozio guztietan, eta bankuek beharrezko neurriak hartzen dituzte, hori arazoa izan ez dadin.

Beraz, honako galdera hau egin beharko diogu gure buruari:

Zergatik ematen dizkiote horrelako mailegu zentzugabeak okerreko jendeari? Bankuek, zenbaitetan, sarriegi hartzen dituzte horrelako erabaki txarrak. Zergatik?

Lehen arrazoiari dagokionez, hitz bat aipatu behar dugu: miopia. Jakinekoea denez, bankuek familia eta enpresei ematen dizkiete maileguak, hainbat urtetan zehar arian-arian itzultzeko. Horregatik, funtsezkoa da familia eta enpresa horiek etorkizunean beren betebeharre erantzuteko gai izango diren aurretiaz balioestea. Ez da, ordea, lan erraza, eta bankuak arriskuak ere izan behar ditu kontuan. Dena den, esperientziari eta zenbait teknikari esker, aipatutako arriskuak egoki bideratzen dituzte oro har.

Esanak esan, inoiz ez dakigu zer gertatuko den benetan etorkizunean, eta batzuetan oso gorabehera txarrak egokitzen dira. Eta horrelako gorabeherak noizbehinka gertatzen direnez, ez da izaten erraza hasieratik aurreikustea. Bankuek badakite hori, baina batzuetan ez dituzte hartzen aipatutako gertakariei aurre hartzeko behar adina neurri. Horrexegatik erabiltzen da, hain zuzen, miopia hitza.

Bigarren arrazoiak imitazio portaerarekin (taldekoiak edo artaldean tankerakoak) du zerikusia. Denek berdin jokatzen dute, oker dabilzala pentsatu arren. Horixe gertatzen da, esate baterako, gauzak ongi doazenean eta optimismoa nagusi denean: konfiantza handiegia sortzen da. Banku zuhurrek

ausartagoen bideari jarraitzen diote, epe ertaineko arriskuaz jabetu arren, epe laburrean arazorik sortuko ez delakoan. Eta gainera, norbere portaera zuritzea erosoagoa edo errazagoa izaten da, gehienek berdin jokatuz gero.

“Espainiako burbuila inmobiliarioa” delakoa aipatutako portaera taldekoiaren adibide garbia dugu. Eraikuntzaren alorreko krisialdia analista guzti-guztiek aurreikusi eta iragarri zuten, baina, hala ere, alor horretan artean nagusi zen optimismoaren mende erori ziren finantza entitate asko, eta epe laburrean irabazi handiak lortzeko aukerari heldu zioten, arrisku handiak onartzuz.



Hirugarren arrazoiak aurreko biekin du zerikusia, batik bat giza faktorearekin, erabakiak gizabanako jakin batzuek hartzen baitituzte. Eta horiek, noski, soldatepeko langileak dira. Baina litekeena da horrelako erabakiak hartzen dituzten langileen soldatek lotura estua izatea, adibidez, emandako mailegu kopuruarekin, edo bankuarentzat epe laburrean irabazi jakin batzuk lortzearekin. Ondorioz, arrisku handiagoak onartzeko prest egongo dira, eta ez dute kontuan hartuko handik bost urtera enpresa batek agian ez duela ordainduko; aitzitik, une horretan mailegua ematea izango da garrantzitsua, gehiago kobratzeko.

Ameriketako Estatu Batuetako goi zuzendarien portaera arduragabe hori izan da, hain zuzen, egungo krisiaren iturburuetako bat (eta askoren ustez, arrazoi nagusia).

Laburbilduz

- Finantza sistemaren funtzionamenduan arintasuna nagusi denean (fondoak normaltasunez eskualdatzen direnean, soberakinak defizitak estaltzeko erabiliz), finantza egonkortasuna dagoela esaten da.
- Aktiboen prezioetan gorabehera handiak daudenean eta finantza entitateek zuzen funtzionatzeari uzten diotenean, ezegonkortasuna sortzen da.
- Ezegonkortasunaren iturburuak arrazoi makroekonomikoak (gobernuen erantzukizuna) edo finantza entitateen jarduerak izan daitezke.
- Finantza entitateekiko konfiantza finantza egonkortasunaren oinarria da. Konfiantza hori galduz gero, litekeena da aurreztaile guztiak aldi berean beren dirua berehala bueltatzeko eskatzea.

- Bankuek oro har oso epe luzerako maileguak ematen dituztenez, aurreztaile guztiak aldi berean beren fondoak itzultzeko eskatuz gero, agian ez lukete izango egoerari aurre egiteko beste diru, eta, likidezia faltaren ondorioz, aktiboak baldintza txarretan saldu beharko lituzkete.
- Konfiantza galera hori entitate guztietan hedatu daiteke, eta ondorio orokorrak eragin.
- Bankuek arrisku handiegiak onartzen eta itzultzeko gaitasunik ez duen jendeari maileguak ematen hasten direnean, aurreztaileen konfiantza bertan behera geratzen da.
- Ameriketako Estatu Batuetako finantza entitateen portaera arduragabea egungo krisi orokorraren iturburu izan da. Ildo horretan, kobratzeko zalantza ezaugarri duten "subprime" hipotekak barra-barra eman zituztela ekarri behar da gogora.

Zer egin behar da finantza ezegonkortasunik ez sortzeko?

Finantza ezegonkortasunari aurrera hartzea sistema osatzen duten alderdi guzti-guztien zeregina da: entitateena, finantza merkatuetan parte hartzen duten pertsona eta enpresena, arautzaile eta ikuskariena (hala nola, Espainiako Bankuarena) eta gu guztiona, finantza produktu eta zerbitzuen kontsumitzaile garen aldetik.

Aurreziazko gutxieneko baldintzak

Etxe sendoa eta gogorra eraikitzeko, lehenik eta behin zimentuak tinko finkatu behar dira, eraikin osoari ongi eutsi diezaioaten. Gure kasuan, zimenduak edo euskarriak elementu multzo bat dira, eta guztien artean "esparru instituzional egokia" delakoa osatzen dute.

Aipatutako elementuetako batzuk merkataritza legeak eta lege zibilak dira, pertsonen eta enpresen arteko harremanen segurtasuna bermatzea helburu dutenak. Dena den, segurtasun hori lortzeko ezinbestekoa da ongi antolatutako sistema judicial sendo independentea sortzea.

Adibidez: Auto bat erostera joaten garenean, badakigu saltzaileak handik hiru hilabetera ez digula esango, besterik gabe, gure akordioa bertan behera uztea eta autoa ez saltzea erabaki duela. Eta bankuari mailegua eskatu eta, esate baterako, handik lau urtera itzultzeko konpromisoa hartzen dugunean, badakigu bankuak ez digula eskatuko dirua hiru aste geroago, edo guk geuk, halako batean, ezingo diogula utzi ordaintzeari denboraldi batez.

Finantza sistemaren oinarritzko beste euskarri bat kontabilitate esparru egokia sortzea da. Ekonomia gertariak islatzen dituzten printzipio eta arauen multzoa da kontabilitate esparrua. Aurrerago adierazi dugunez, konfiantza funtsezkoa da bankuentzat, eta, konfiantza hori indartzeko, hainbat datu ezagutu nahi izaten ditugu: besteak beste, zenbat sarrera eta gastu izan dituen, zenbat etekin edo galera, zer arrisku onartzen dituen etekin horiek lortzeko eta zenbaterainoko gaitasuna duen onartutako arriskuei aurre egiteko. Eta are gehiago, ezaugarri horiek neurtzeko modua egokia eta beste bankuetan erabilitakoaren parekoa izatea eskatzen dugu, konparazioak egiteko.

Laburbilduz, sistemak funtzionatzeko ezinbestekoa da ustez oinarritzokoagoak diren elementuak ongi zehaztuta eta finkatuta egotea. Hortik abiatuz, sisteman parte hartzen dugun guztion erantzukizunak zehaztu ditzakegu.

Entitateen erantzukizuna

Bankuek hainbat arrisku izan ditzakete, eta saihestezinak dira gainera, beren ohiko jarduerari lotutako arrisku batzuk berezkoak direlako.

Bankuetako arduradunek baliabide tekniko eta giza baliabide guztiak eskaini behar dituzte arriskuak identifikatzeko, neurtzeko, behatzeko eta, ahal den neurrian, murrizteko, bankuen jardunean arrisku batzuk berezkoak baitira. Eragiketa berri bat egitea erabakitzen den bakoitzean, ez da hartu behar kontuan negozio aukera soilik, nahitaezkoa baita arriskuei eta arriskuen ustezko ondorioei ere erreparatzea. Gainera, unean



uneko egoera ez ezik, fase guztiak (epe luzerako ikuspegia) ere aztertu behar dira.

Orain dela urte gutxi ekonomia ongi zebilen, eta egoera on horrek optimismo handiegia sorrarazi zuen. Baina esperientziak argi erakusten du garai onen ondoren aldi korapilatsua goak heltzen direla beti, ekonomia ziklikoa delako. Egun gauzak zertan diren ikusita, printzipio hori egiaztatuta geratu da.

Beraz, bankuek aurreikusitako egin behar dute ustezko arriskuak mamitu egin daitezkeela. Zeregin horretan beti ez dugu betebetea asmatuko, ezinezkoa baita, eta agian huts egingo dugu, baina garai txarretarako prestatzea nahitaezkoa da.

Entitateek ongi ezagutu behar dituzte bezeroak, eta beren burua ere bai. Bezeroak ongi ezagutzea oinarritzkoa da edozein negoziotan, jakina, baina banku negozioan are garrantzitsuagoa da. Bezeroen gustuak ezagutzeaz gain, aholkularitza eman eta produktuen arriskuak jakinarazi behar zaizkie. Izan ere, produktuarekin batera, arriskuak ere onartuko ditu bezeroak. Horregatik, entitateak lagundu egin behar dio bezeroari, aukerako produktuen xehetasunak ongi ulertu ditzan.

Eta noski, entitateak bere burua ere ongi ezagutu behar du. Horretarako, nahitaezkoa da arduradunek entitatea egoki kudeatzea, eta, halaber, jardunbide eta sistema zuzenak sartzeari, informazioa behar bezala hedatu eta langile guztiak entitatearen kulturari lotutako alderdi guztiak (balio etikoetatik hasi eta arrisku mailetaraino) ulertu eta partekatu ditzaten.

Zein da kontsumitzaileen erantzukizuna?

Finantza zerbitzu eta produktuen kontsumitzaileok, ahal dugun neurrian, finantza egonkortasuna sustatzen saiatu behar dugu, erabaki arduratsuak hartuz. Horrela jokatzeko batzuetan ez da hain erraza, gero eta produktu sofistikatuagoak eta ugariagoak baititugu aukeran. Hala ere, kontsumitzaileok bi alderdi landu ditzakegu erabaki arduratsuak hartzeko:

1. Informazio eskuragarri guztia bilatzea eta eginahalak egitea behar dugun produktuaren ezaugarriak ulertzeko.

Argazki kamara bat erosi aurretik hainbat dendatara joaten gara, Interneteko orrietan begiratzen dugu, ezaugarriak eta prezioak alderatu eta, azkenean, aurrekontuaren arabera, gure gustu eta beharrek bat datorrena aukeratzen dugu. Ez genuke egin behar beste horrenbeste hipoteka sinatu aurretik? Izan ere, ia bizitza osoa emango dugu ordaintzen.

2. Finantzei buruz ahalik eta gehien jakiten saiatzea

Zeregin konplexua den arren, ongi pentsatuta, bistakoa da gure bizi kalitatean berebiziko eragina duten ia erabaki guztiak finantzekin zerikusia dutela: etxebizitza erosteko hipoteka, autoa erosteko mailegua, jubilaziorako aurrezkiak, eta beste asko eta asko. Beraz, ez al da egokia denbora gehiago ematea eta ahalegin handiagoa egitea finantzen nondik norakoak hobeto ulertzeko? Dena den, zeregin horretan kontsumitzaileok ez dugu bakarrik jardun behar, erakundeek ere badituzte eta erantzukizunak eta betebeharrak.

Laburbilduz:

- *Finantza egonkortasuna sustatzea guztion erantzukizuna da.*
- *Estatuek esparru instituzional egokia sortu behar dute (zuzenbide estatua, merkataritza legeak eta sistema judiziala).*
- *Kontabilitate esparru bateratua finkatu behar da.*
- *Bankuek autokontrola gauzatu behar dute, eta bezeroak eta beren burua ongi ezagutu.*
- *Kontsumitzaileok ere egin dezakegu geure ekarpena: informazioa bilatuz, finantza produktu eta zerbitzuak ongi ezagutuz eta zorpetze arriskua neurtuz.*

Banku sistemaren arauketa

Zergatik arautu behar du alor publikoak bankuen jarduna? Entitateetan konfiantza izan dezakegu, zentzuz jokatuko dutelakoan, eta behaketa lana merkatuak egin dezake nolabait. Hori ez litzateke nahikoa izango?



Ez da nahikoa, finantza merkatuek batzuetan huts egiten dutelako. Eta merkatuek huts eginez gero, baliteke konfiantza galtzea, finantza ezegonkortasuna sustatzea eta ekonomian oro har oso ondorio kaltegarriak sortzea. Horregatik, estatuak bi modutan hartzen dute esku:

- arauak ezarriz
- gainbegiraturaz

Bankuen araudia

Araudi publikoak hainbat helburu ditu: finantza entitateen funtzionamendu onari eustea, gorabehera txarrei aurre egiteko gaitasuna areagotzea, eta zuzenean parte hartzen duten alderdien (bankuak, aurreztaileak eta inbertitzaileak) interesak eta interes orokorrak uztartzea.

Lehenago azaldu dugunez, dirua gordailutan uzten duten pertsona eta enpresa gehienak halako batean berehala bueltatzeko eskatzen hasten badira, bankuek porrot egin dezakete. Horrelako egoerei aurrea hartzeko, Gordailu Aseguruak egiten dira. Horien bidez, bankuetan utzitako dirua aseguratuta egiten da, zenbateko jakin bateraino behinik behin. Horrela, bankuak porrot egin arren, dirua berreskuratu egiten da neurri batean. Aipatutako sistemari esker, mesfidantza nagusitu arren, gordailugileek ez dute dirua bueltan eskatzen, eta bankuek arazoei aurre egiteko aukera gehiago izaten dituzte.

Espanian, Gordailuak Bermatzeko Fondoa dago.

Bestalde, banku batean arrisku larri bat, adibidez porrot egiteko arriskua, sortzen bada, eta egoera hori ongi dabilzan bankuetan ere hedatzeko arriskua badago, Banku Zentralek, egoki baderitzote, esku hartu eta mailegua eman diezaioke-

te kasuan kasuko bankuari. Beraz, banku batek behin edo behin likidezia arazoak baditu, Banku Zentralak aldi baterako mailegua eman diezaioke, merkatuak lasaitu eta bankuaren egoera onbideratu arte. Horretarako ezinbestekoa da, ordea, bankua kaudimenduna izatea.

Zuhurtasunezko araudia

Bankaria izateko zenbait baldintza bete behar dira: besteak beste, zintotasunez jokatzeko eta lanbideari lotutako jarduerara ezaugarriak gauzatzeko gaitasuna izatea.

Bestalde, neurri batzuei esker, arazoei aurrea hartzeko prozesuak hobetzeko aukera izaten dute entitateek. Orain arte aipatu bezala, arazoak egoki identifikatzea, neurtzea eta kudeatzea da aurrea hartzeko oinarriko ardatza.

Araudiaren arabera, kasuan kasuko arriskuen arabera baliabide propioak (akziodunek utzitako kapitala eta etekinen bidez metatutako erreserbak) eduki behar dituzte bankuek.

Baliabide propioek, behar adinakoak izateaz gain, hainbat ezaugarri bete behar dituzte, entitateak arazoei aurre egin eta negoziarekin aurrera jarraitu dezan. Baliabide propioen kantitateari eta kalitateari buruzko gutxiengo betebeharrak betetzeaz gain, jarraibide jakin batzuen arabera neurtu behar dira arriskuak, baliabide horien eta arriskuen arteko lotura dela eta.

Era berean, oso garrantzitsua da entitateek aktiboak ongi balioestea eta, edozein arazo azarna nabaritu bezain laster, beharrezko zuzenketak egitea.

Adibidez, banku batek mailegu bat ematen duenean ezin du jakin, ziurtasun osoz, benetan itzuliko dioten ala ez. Baina mailegu hartzaileak hainbat hilabetetan ordaintzen ez badu, dirua (zenbateko osoa edo zati bat) ez berreskuratzeko arriskua kontuan hartu beharko du. Gainera, esperientziaren poderioz, bankuek gehiago dakite orain, eta matematika eta estatistika prozeduren bidez, maileguei lotutako etorkizuneko galeren aurreikuspenak egin ditzakete.

Banku ikuskaritza

Bankuen jarduna behatzeko sistemari deitzen zaio banku ikuskaritza. Espainiako Bankuak ikuskatzen ditu, indarreko araudia zenbateraino betetzen duten egiaztatzeko.

Espainiako Bankuak, ikuskaritzaren bidez, bere eskumeneko arauak betetzen diren behatzen du, baina alderdi jakin batzuei bereziki erreparatzen die. Honako hauek dira:

- Bankuek erabili beharreko kontabilitate arauak.
- Entitateen finantza egoerarekin eta kaudimenarekin zerikusia dutenak.
- Bezero txikiak babesteari buruzkoak.

- Merkatuekiko informazio gardentasunaren ingurukoak.

Banku ikuskaritzak funtsezko hiru ardatz ditu:

1. Entitateen jarduna etengabe gainbegiratzeko sistema. Hainbat zeregin hartzen ditu barne: besteak beste, entitateek aldizka bidaltzen duten informazioa aztertzea, eragiketei urruneko jarraipena egitea, aldizkako ikuskaritzak egitean bankuan bertan, eta entitateetako zuzendariekin elkarrizketak izatea.

2. Ikuskaritza neurri zuzentzaileak. Gainbegiratze lanen ondorioz, betetzen ez diren arauak eta hobetzeko moduko kudeaketa alderdiak antzematen dira entitateetan. Bi eremu horiei jarraipen zorrotza egiten zaie gero, kasuan kasuko eskakizunak edo gomendioak zenbateraino bete dituzten egiaztatzeko.

3. Diziplina eta zigor erregimena. Entitateetan nahiz entitateetako administratzaileengan izan dezake eragina.

Laburbilduz

- *Esperientziak argi erakutsi du finantza merkatuek batzuetan huts egiten dutela eta autoerregulatzeko gaitasunik ez dutela. Horregatik, ezinbestekoa da botere publikoek esku hartzea.*
- *Bankuen, aurreztaile eta inbertitzaileen eta gizartearen interesak uztartzea da banku arauketaen helburua.*
- *Espanian, Fondoak Bermatzeko Gordailuak bankuetan sartutako dirua bueltan jasoko dela ziurtatzen du, betiere muga jakin bateraino. Mesfidantza nagusitzen denean egoerari aurre egiten laguntzen du aipatutako fondoak, aurreztaileak beren dirua eskatzen hasi ez daitezten.*
- *Espainiako Bankuak zuhurtasunezko araudia (nork eta zer baldintzatan sortu dezakeen banku bat) dauka finkatuta, eta bankuen jarduna etengabe gainbegiratzen du, diziplina eta zigor erregimenaz ere baliatuta.*

Norentzat dira onuragarriak Vital Kutxaren finantza emaitzak?

Vital kutxak gizarte ekintzara bideratzen du urteko etekinen ia % 29



Ikasleentzat, ikertzaileentzat eta berritzaileentzat, gure gizartearen “erregaiak” baitira:

- Arabako Lanbide Heziketa gure industria lehiakortasunaren funtsezko ardatza da. 2008an, milioi bat euro baino gehiago eman genizkien Jesus Obrero eta Diocesanas ikastetxeei.
- Arabako unibertsitate ikasleentzat, Euskal Herriko Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmenen bidez.
- Berrikuntza eta ekintzailtza bekak, atzerriko prestakuntzakoak eta enpresetan praktikak egiteko bekak jarri ditugu abian ikasle guztientzat, programa garrantzitsu baten bidez.
- Eskoletako ikasleekin hainbat programa garatzen ditugu: HIESaren kontrako sexu hezkuntza, dieta arazoei aurre egiteko elikadura prestakuntza, genero indarkeriaren prebentzioa...
- Hizkuntza Instituto Fundazioa ezinbesteko tresna bihurtu da, bai irakaskuntza arautua osatzeko, bai Arabako ikasleei ziurtagiriak lortzeko eta goi hezkuntzan sartzeko prestakuntza emateko.

Kultur ondarea maite dutenentzat, Vital Kutxak gure arkitektura ondarea (Kordoi etxea, Portaloia, Otxanda Andrearen dorrea, Zulueta jauregia, Eskoriatza-Eskibel jauregia, Antoñanako harresia) berreskuratzeko eta balioztatzeko hartu duen konpromisoa baloratzen dutelako.

Hona hemen Vital Kutxak gure kultur ondarea iraunarazteko eta balioztatzeko hartutako konpromisoaren beste adibide batzuk:

- Santa Maria katedrala: kultur ondarearen eta hiri ingurunearen berreskurapen harmoniatsuen erreferentzia bihurtu da nazioartean. “Obratan eta irekita” programaren bidez, zaharberritze lanak tokian bertan ezagutzeko aukera ematen du Kutxak. Urtero 100.000 bisitari baino gehiago bertaratzen dira.
- Armentiako basilika erromanikoan egindako ikerketak.
- Gesaltza Añana haran gatzagaduna berreskuratu eta ezagutzera eman.
- Antso Jakintsua Fundazioa: euskal gaien buruzko liburutegi digitalik garrantzitsuena...

Ingurumenarekin arduratsuak direnentzat, badakitelako gure inguruneari etorkizun iraunkorra bermatzeko oinarri bakarra etorkizuneko belaunaldiak prestatzea eta sentsibilizatzea dela.

Vital Kutxak bost urte baino gehiago daramatza garapen iraunkorrerako hezkuntzari lotutako ekimenak garatzen: hondakinen kudeaketaren inguruko ekintzak, eta hezkuntza eta aisialdi ibilbideak naturan. Azken horietan 60.000 ikaslek baino gehiagok hartu dute parte.



Elkartasunean, integrazioan eta nazioarteko lankidetzan sinesten dutenentzat

Vital Kutxak elkarlanean jarduten du gizarte boluntarioritza sustatzen duten eta etorkinei eta gizarte bazterkerian erortzeko arriskuan daudenei gizarteratzen laguntzen dieten elkarte eta erakundeekin. Halaber, nazioarteko lankidetzaren alorreko erakunde eta proiektuei ere dirulaguntzak ematen dizkie.

Vital Kutxak, gainera, etorkinei eta ohiko finantza sistematan sartzeko arazoak dituztenei laguntzeko mikrokreditu programa kaleratu du, “berme morala” oinarri hartuta.

Gure Kutxak Arabako Larrialdietarako Fondoan ere hartzen du parte. Larrialdietan (hondamendi naturaletan edo krisi humanitarioetan) berehalako dirulaguntzak emateko sortu zen, hain zuzen, aipatutako fondoa.

Kultur kezak dituztenentzat

Kultur ekimenak diseinatzen eta antolatzen ditugu gizarte maila eta gure lurraldeko txoko guztientzat.

- Vital Arabaren alde programa. Musika genero guztiak eta ballet eta dantza ikuskizunak Arabako ia udal guztietara eramaten ditugu urtero.
- Vital Kutxaren Gizarte Ekintzako erakusketa aretoek funtsezko plataformak dira tokiko sortzaileen lanak edo lan ibiltariak erakusteko. Urtero, 200.000 bisitari baino gehiago izaten dituzte.
- Vital Kutxa ARTIUM patronatuko kidea denez, gure Arte Garaikideko Zentro Museo nagusiaren kultur hedapeneko jarduera guztiak gauzatzen laguntzen du.
- Ajuria Kultur Gelak eta Vital Kutxa Fundazioak zinena, bideo, ikus-entzunezko, hitzaldi, ikastaro, tailer, kontzertu eta errezitalen programazioa eskaintzen dute. Era guztietako ikusleak bertaraten dira urte osoan zehar.

Dena den, Vital Kutxak kulturaren alde hartutako konpromisoa ongien islatzen duen programa, ezbairik gabe, iKREA adierazpen garaikidea da, nazioarteko erreferentzia gune bihurtzeko asmoz sortua. Egungo garaiko sormena, esperimentazioa, arte pentsamoldea eta kultura sustatzea da aipatutako proiektuaren xedea.

Ezinduentzat

Ezintasunak dituztenak ordezkatzen dituzten elkarte eta taldeei finantza baliabideak edo baliabide materialak emanez, minusbaliotasunak, gaixotasun psikikoak, autismoa, Alzheimer, down sindromea, garun paralisia, entzumen edo ikusmen urritasuna, giltzurrunetako gaixotasunak, anorexia, bulimia, minbizia, kalte zerebral baliaezinak edo laringetomiak dituzten biztanleei laguntzen diegu.

Kirola ere integrazio tresna garrantzitsua da. Horregatik, Vital Kutxak lankidetzat hitzarmena sinatzen du urtero Zuzenak Kirol Elkartearekin, ezinduentzako kirol egokituaren alorrean ari baita lanean.

Adinekoentzat

Kutxak, Mejora Fundazioaren bidez, aisialdi, kirol, hezikuntza eta kultur jarduerak antolatzen ditu urtero adinekoentzat, eta, halaber, teknologia berrien ingurukoak eta lankidetzat eta elkartasunekoak. Jakinakoa denez, aipatutako fundazioaren helburua adinekoen bizi kalitatea hobetzea da.



Horiez gain, adinekoentzako kirol jarduerak egokituak antolatzen ditugu: golfa, mendi ibilkiak, ibilbideak bizikletaz, billar eta petanka saioak, eta noski, ekimen ludikoak eta aisialdiak, festak, bidaiak, egonaldia bainuetxeetan, antzerkiak, musika, poesia...

Bestalde, adinekoentzako laguntza proiektuen baitan, etxebizitzaren egokitzapen funtzionalerako programa nabarmendu behar da, bizigarritasun baldintzak hobetzea baitu helburu.



Emakumeentzat

Emakumearen aldeko ekintza politikak garatzen dituzten elkarte eta entitateei laguntzen die Kutxak, eta beste horrenbeste egiten du genero indarkeriaren biktimei lan munduan sarbidea ematen saiatzen diren elkarte eta entitateekin ere.

Bestalde, Herri Kulturako eta Helduen Sustapenerako Zentroak, Gizarte Ekintzaren babesaz, lan garrantzitsua ari dira egiten, batik bat emakume etorkinen sustapenaren alorrean.

Belaunaldi berriak prestatzea eta trebatzea funtsezkoa da etorkizuneko hezikuntza berdintasuna bermatzeko, eta, beraz, Kutxak eskola kanpainak sustatzen jarraitzen du, zeharkako edukien bidez, ideia eta jokaera sexistak gainditzeko eta sexuen arteko berdintasun eta erantzukidetasun balioak hedatzeko.

Gazteentzat

- Vitalquilerrekin: proiektu honen helburua Vitoria-Gasteizko merkatuan 1.000 Babes Ofizialeko Etxebizitza alokairuan jartzea da eta, gainera, Caja Vital Kutxaren Gizarte-ekintzaren diru-laguntzarekin; diru-laguntza hori etxebizitzaren tamainaren, alokatutako diru-sarreraren eta Entitatearen bezeroen zerrendaren arabera izango da, besteak beste. n.
- Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen aldeko programen bidez, lanerako prestakuntza eskaintzen eta enplegua lortzeko aukerak sustatzen laguntzen dugu, ikerketa eta ekintzazailtza proiektuetarako beka deialdien bidez, atzerrian ikasteko eta praktikak egiteko aukera ematen dugu, eta hizkuntzak ikasteko aukera ere bai, Hizkuntza Institutuaren bidez... Era berean, Ahaleginaren Sariak ematen dizkiegu gizarte edo ezintasun arazoak gainditu dituzten ikasleei.
- Aisialdiari eta kulturari dagokionez, Jaibus Vital programak gure lurraldeko gazteei garraio bide segurua eskaintzen die jaietan.

Kutxa eta gazteak

Kutxak etorkizunaren aldeko apustua egin du. Horregatik, zuentzat bereziki pentsatutako produktu eta zerbitzu linea osoa kaleratu dugu.

Aholkulari Gaztea

Vital Kutxara etortzen zarenean edozertaz galdetzer... Ba al dakizu nor hitz egingo duen zurekin? Zure Aholkulari Gazteak, Vital Kutxak gazteei eskaintzen dizueten arreta zerbitzu pertsonalizatua.

Nor da zure Aholkulari Gaztea?

Zu bezalako gazte bat. Zu entzuteko eta ulertzeko gai izango da, eta zure finantza zalantza eta kezkei erantzungo die. Erraz ulertuko duzue elkar, hizkuntza berbera erabiltzen duzuelako.

Zertan lagundu diezazuke?

Diruarekin zerikusia duten zure bizitzako alderdi guztietan. Adibidez:

- Etxebizitzak erosteko edo alokatzeko aholkuak eman eta urratsak azalduko dizkizu.
- Erasmus bekak edo bestelako edozein eskatzeko bete beharreko baldintzen berri emango dizu.
- Master bat egiteko, ordenagailua erosteko, gidabaimena lortzeko, autoa edo motorra eskuratzeko... finantzaketa nola lortu dezakezun azalduko dizu.
- Bidaietan dirua erabiltzeko moduari buruzko argibideak emango dizkizu...

Nola jarri zaitezke harremanetan zure Aholkulari Gaztearekin?

Vital Kutxaren web orriaren bidez, hitzordua finkatu dezakezu aurrez aurre hitz egiteko. Eta nahi baduzu, zalanztak telefonoz edo posta elektronikoz argitu ditzakezu.

TKJ

- Zordunketa txartela da, hau da, kutxazainetan ateratako edo dendetan ordaindutako zenbatekoak momentuan bertan zorduntzen dizkizu kontuan.
- Doakoa da 14 eta 30 urte bitarteko gazteentzat.
- TKJ txartela Espainiako eta atzerriko kutxazain automatiko guztietan erabili dezakezu, segurtasun osoz, EMV teknologiko txipari esker.
- Gainera, deskontuan eta abantailak lortu ditzakezu kontzertuetan, ikuskizunetan eta kiroleetan. Eta beste hamaika abantaila ditu, Vital Kutxaren Gazteentzako web gunean ikusiko duzun bezala.



Gazteentzako web gunea

Bertan, askoz ere informazio gehiago aurkituko duzu gazteei eskaintzen dizkiegun produktu eta zerbitzu guztiei buruz. Gainera, gure kanal tematikoetan sartu zaitezke. Honako gai hauek dituzu aukeran: prestakuntza, enplegua, gazteentzako informazioa, bidaiak, zinema eta ikuskizunak, museoak eta kultura...

“Mobidak” gazteentzako gunean

Vital Kutxan beti duzu zerbait interesgarria aukeran: bidaiak, eskiatzeko txangoak, abentura jarduerak, itsas jarduerak, hizkuntza ikastaroak atzerrian.

Sare Sozialak

Facebook, Twitter, Youtube eta Flickr birtarte jarrai gaitzazu eta interesatzen zaitzizun ekimen guztien berri izateaz gain, horri buruzko iritzia eman ahal izango duzu. Gu beti entzuteko prest eta... hitz egiteko prest gaude.

Eta Kutxak, beti bezala, hauek guztiak ere eskaintzen dizkizu:

- Etxebizitza kontua: aurreztuz eta desgrabatuz, gerora etxebizitza erosi dezazun.
- Gazteentzako hipoteka: 50 urterainoko epea, lehen urteetan estu eta larri ez ibiltzeko.
- Aseguruak etxebizitzarentzat, autoarentzat, motorraren-tzat...
- Nomina helbideratzeko aukera, abantailaz betea.
- Haurrentzako libreta, ageriko kontuak, e-kontua

Finantza produktu eta zerbitzuak kontsumitzeko aholkuak

Finantza entitateak, kutxak, bankuak eta kreditu kooperatibak gure bizitzako atalak izango dira, haien esku utziko baititugu gure dirua eta eguneroko ordainketak eta gastuak. Ezbairik gabe, gure bizitzako ekonomia eragiketa nagusiak (etxebizitza erostea, erretiro plana...) egiteko, finantza entitate batera joko dugu aholku eta laguntza eske.

Horregatik da hain garrantzitsua entitatea zuzen aukeratzea, finantza produktu eta zerbitzuak ezagutzea eta gomendio hauei guztiei jaramon egitea:

1. Ongi aukeratzea

Entitatea aukeratzeko, zenbait alderdi garrantzitsu eta objektibo hartu behar dira kontuan, hala nola, zerbitzu kalitatea eta gaitasuna, bermea eta konfiantza, gizartearen aldeko konpromisoa...

Jende askok opariei edo promozio ekintzei erreparatzen die, besterik gabe, hain garrantzitsua den erabaki hori hartzeko.

2. Segurtasuna baloratzea

Administrazioak behatzen eta ikuskatzen dituen entitateetan konfiantza izatea benetako bermea da, batik bat egungo garaian. Era berean, nazioarteko erakundeek egindako arrisku eta kaudimen sailkapenak ere kontuan hartzea komeni izaten da.

3. Negoziatzea

Entitate malguek negoziatzeko aukera ematen dute beti, haien baldintzak eta zure beharrak bat etorri daitezzen.

4. Entitatea eta bere produktuak ongi ezagutzea

Entitate berberak hainbat eratako produktu ugari eskaintzen ditu, eta merkaturatzeko bide anitzak ere erabiltzen ditu. Dena den, ia beti, interneten edo telefono bidezko bankuaren bidez eskainitako produktuen baldintzak ohiko produktuenak baino hobek izaten dira

5. Zorra kontrolatzea

Kreditua eskatzeko erabakia ongi hausnartu behar duzu, eta argi eta garbi ikusi behar duzu kuotak ordaintzeko gai izango zarela. Aurreko atalean aipatu dugun bezala, kaudimenik eza finantza krisien arrazoietakoa bat izaten da.

Hipoteka mailegua kontratatzeke asmoa baduzu, kontuan hartu kuotak ez duela izan behar zure sarreraren % 40tik gorakoa.

6. Finantza produktuak ongi erabiltzea

Ageriko kontu eta libretak egokiak dira ordainketak eta kobrantzak kudeatzeko, baina ez dira erabili behar epe luzean aurrezteko edo saldo handiak edukitzeko. Entitateetako aholkulariek produkturik egokienak eskainiko dizkizute zure behar bakoitzarentzat.

7. Dibertsifikatzea

Ezinbestekoa da aurrezkiak gordailutan utzi edo inbertitzaerakoan arriskua murrizteko.

8. Informatzea eta, beharrezkoa bada, erreklamazioa egitea

Entitateak zure mugimenduei buruzko aldizkako informazioa bidaliko dizu. Edozein zalantza argitzeko edo erreklamazioak egiteko, entitateko aholkulariarekin (edo bezeroen babeserako zerbitzuarekin) berehala harremanetan jartzea izango da onena.

